

ZAKILIXUT



Galdutako gauzen bulegoa

■ 1998ko lehenengo seihilekoan 2587 objektu jaso ziren Garellanoko biltegian

HIRU iturritatik heltzen dira gauzak Bilboko Udaltzaingoa Garellanon duen biltegiara. Alde batetik, udaltzainek eurek eguneroko lanean aurkitutakoak edo komisariatari jasotakoak; bestetik, erakundeek edota hiritarrek kausitu eta zuzenean bulegora eramandakoak; eta, azkenik, beste udal-erri batzuetatik bidalitakoak, gehienetan galdutako edo ebatsitako agiri pertsonalak.

Azken horiek dira, zalantza barik, mugimendu gehien eragiten dutenak. Poltsa, jaka edo dena delakotik kartera lapurtu ondoren, ebasleak dirua eta bankuko txartelak gorde orduko, gainontzeko gutzia bota egiten du. Larritasun handia izaten du jendeak honelako kasuetan, eta, horren ondorioz, dozenaka dei jasotzen dituzte bulegoan egunero. Bertako langileek diotenez, alferrikakoak dira deiok, agertzen direnean eurek jakinarazten baitiete agiriaren jabea bila joan daitezela. Garai jakin batzuetan beharra biderkatu egiten zaie; izan ere, nahiz eta askotan esaten den kontu handiz ibili beharra dagoela Aste Nagusia edo Santo Tomas bezalako egunetan, poltsikoak arintzen dihardute-nek emaitza bikainak lortzen dituzte, hutsik egin barik.

Galdutako giltzekin ere sorta ederra egin liteke. Bulegoan jaso ahala, horma batean eskegitzen dituzte. Legeak dioenaren arabera, bi urtez gorde behar dituzte han batutako gauza guztiak; hala ere, hilabete batzuen buruan aurkitzaileak aurkitutakoak galdetzen badu, gehienetan eman egiten zaio. Inongo erreklamaziorik ez badago, berriz, Caritas, Errukietxea eta antzeko erakundeak ematen zaizkie, helduko direnei tokia egite aldera.



MIKEL MARTINEZ

Inongo
 erreklamaziorik
 ez badago, Caritas,
 Errukietxea eta
 antzeko erakundeak
 ematen dizkiete

Guggenheim eta metroa

Ezbairik gabe, Bilbo berrituaren ikur bilakatu diren museo eta garraiobidea jende aldrak biltzen hasi aurretik, Garellanoko langileen bizimodua lasaiagoa zen. Pinakotekara doazenen artean askok, eraikuntzaren ikusgarritasunaz liluraturik edo, sarreran utzitakoak ahaztu egiten dituzte. Gero eta jende gehiago daraman metrotik zein Bizkaibus eta Bilbobus garraiobide publikoetatik ere etengabe jarria heldu zaie. Neguan ahantzitako gauzen kopurua nabarmen hazten da:

tapaukak, aterkiak, eskularruak, txanoak... Udaleko Corte Inglesa eratzeko lain.

Motxilak eta poltsak ere eguneroko kontua dira. Nahiz eta gehienetan arropa zahar edo zikin bezalakoak agertzen diren, lantzean behin jantzi erosi berriak izaten dira. Azken urteotan hainbeste ugaritu diren telefono mugikorrek ere gero eta maizago azaltzen dira betaurreko, liburu eta enparauekin batera. Dirua, bitxiak eta balio handiko gauzak, ordea, ez dira batera ohikoak.

Horrelakoetan, 1950etik indarrean dagoen Kode Zibileko artikulua batek aurkitzaileari eman beharreko kopurua arautzen du, % 5 hain zuzen ere. Dirudienek, jendeak pozik ematen du aipatu kopurua, baina, hala ere, legearen aurka madarikazioka hasten den eskertzarrekorik ere badago bazterretan.

Pedro Zuberogoitia

BILBO

kasu!

▶ Altxor arkeologikoa zaborretara

Baliorik gabeko egurra zela-koan bota zuen zaborretara langile batek Vikingoen garaiko altxor arkeologiko bat. XII. mendeko itsasontzi bateko zurezko plantxa tailatu bat hartu zuen, garbiketa lanak egiten ari zela. Enbalaje zabor batzuk bota behar zituela eta, han ikusitako zura egur puska zahar bat zelakoan bota zuen. Egur puska zahar hori, ordea, Irlandako Museo Nazionalako jabetza preziatua zen.

▶ Ekialdeko Erregeak kartzelan

Aiton-amonak, eta haien alaba eta biloba bat bisitatzera joan ziren bost biloba Ekialdeko Erregeekin batera. Droga trafikatzailer talde bat osatzen zuen familia horrek Malagan (Espainia), eta horregatik daude kartzelan. Familia horrez gain, bisita gehiago egin zituzten Erregeek. Kartzelan dauden pertsonen senide txikiak izan ziren haien gustukoak. Haurrek ere pozik hartu zituzten eramandako opariak.

▶ Garagardotegi batean harrapatua

Atzo, J.M.A.Z 40 urteko gizonak garagardotegi bat aukeratu zuen lapurtzeko. Askotan lapurtu badu ere, berehala harrapatu zuten. Izan ere, garagardotegiak alarma zuen ezarriarik, eta lapurrak ez zuten uste horrelakorik zegoenik. Ertzaintza hara joan zen alarma zentrotik mezua jaso ondoren.